



liburutegia

185

TV  
123  
Apaiz Osteguna  
ta Aurak





## BERTATXO BAUMANN

Nexkato onen bizitza-beñi laburak 21 ga  
orïaldean idoro ditzake irakurleak.









## I. ¿Zer da Apaiz-Osteguna?

Aur maitea: Zuk apaiz-ostegunez zerbait entzun izan duzu noski. Adi egon zaitez, onezaz beñiren bat eman-go dizut-eta.

Gauza oso bakuna ta eñaza da, baina bere eginenetan ezin esandako andia ta mundu guziarentzako ondasuntsua. Ileko lenengo ostiralaren auñeko osteguna, apostoluen Eñegina ta grazia guzien bitarteko Mariaren bitartez, Yaungoiko Yaregileari (Salbatzaleari) eskintea: auxe da apaiz-osteguna. Egun oñetan kristauak Meza santua entzun, gure Yauna artu ta eguneko otoitz ta egite onak mundu guziko apaiz ta apaizgaien alde eskini bear dituzu. Egun oñetan ez Mezatara ez Yaunartzera yoan ezin bazera, biaramonean au egin dezakezu. Onetarako gauza beñirik eztuzu egin bear. Ostegun au apaizak gurendu edo santu egin ditezen eskini. Auxe, ez



besterik. Asmo au ezta ez baltzu edo lagundi ez alkartasun befiren bat sortzea. Ileroko lenbiziko ostiralaren antzeko egite bat da, mundu guziko katolikuentzako arazoa.

## II. ¿Zergatik gordeten dut apaiz-osteguna?

Nik apaiz-osteguna Yaungoikoari ta bere apaizai zor diedan esker onez eta maitasunez gordeten dut. Yaregile maitiak eman dizkigu apaizak. Berok Yau-naren moñoi edo serbitzari ta ordezkooak dira. Beroi zor diegu guk Luñean dugun zerik onena. Apaizak sineste gurena eman digute. Gure asabak paganukuntzaren ilunpean zeudenean misiolariak berengana agertu ta egiazkoa erlijioa iragari ta erakutsi zieten. Guk gure asabenganik yarautsi edo eredatu dugu sineste gurena, apaizak oñetarako argia emanik.

Apaizak bateatzen gaituzte, gure animatik asierako pekatu edo ogena



kendu ta Yaungoikoaren aur egiten generala. Apaizen bitartez dakigu Yaungoikoaren aginduak gordeten eta ongi ta gartsuki bizi izaten. Berak esaten digute zerura eltzeko zer egin bear dugun. Apaizak aitorkuntza edo konfesiorako argia ematen digute eta Yaungoikoaren ordezeko bezela gure animatik pekatuak ateratzen dituzte. Apaizak, Komunio santurako gertuz, Ostia gurenean Yesus ematen digute.

Apaiz ta Gotzainak guri, sakramentuak aferaziz, pekatuak baztertu ta onbideak (birtuteak) egiteko doariak (graziak) ugari ematen dizkigute.

Apaizak eri gaixoak ikustaldietan poztu egiten dituzte, ilteko daudenai lagundu ta ildakoak lurpera eraman.

Apaizak guretzat otoitzak egin ta egunoro Opari gurena (sakrifizio santua) eskinten dute.

Yesusek berak Gotzain ta apaizai eskubide aundiak eman dizkie. Gotzain ta apaizak, gure onerako, Yainkoarenganik erantzun beaferko arazo altsua artu dute.



Apaiz-ostegunean guk gure esker ona erakutsi bear diegu, otoitzez eta egite onez lagun egiten diegula.

Onegatik apaiz-osteguna niretzat berarizko grazia bat da, misiolari bezela egiten nauena, egun guziko egite erlijiozkoak apaizak gurendu ditezen opa ditudala. Onela, beren arazoa arnaritsuago izanik, Elizak indar ta edertasun andiago artuko du.

### III. Aita Santuaren itzak

1934-gaŕen urteko azaroaren 21'an Andre Mariaren agertze-egunean, Yaregiletaŕak (Salvatorianos) izendun Praileen nagusi A. Pancratius Pfeiffer-ek Aita Santuari egindako ikustaldian, apaiz-egun au zer zan erakutsi zion. Gogo onez artu zion Aita Santuak asmo beŕi au ta itz auezaz amaitu (bukatu) zuen ikustaldia: *Guk asmo au goratzen dugu ta biotz-biotzez bedinkatu ere bai. Beŕiz diogu. Asmo au atsegin zaigu, goratzen dugu, bai ta biotz-biotzez bedinkatu ere.*



Aita Santuari biotzean sartu zaizkion apaizentzako otoitz ta opariak. 1923-gaŕen urtean itz auek esan zituen Aita Santuak: *Yaungoikoak zeruan eta lutean guk apaizentzako otoitz ta opariak baino gaŕ andiagoz eztugu ezer nai. Apaiz gurenak eman ditzaigula eskatzen diogu Yangoikoari. Au badegu, beste zernai etofiko da. Au izan ezik, ezertarako eztugu enparaua bear.*

Aita Santua Kristoren ordezkoa da. Guk berak dioskuna egin bear dugu. Oŕegatik daukagu Apaiz-osteguna.

#### **IV. Nola gordeten dut nik**

##### **Apaiz-osteguna**

Yesusen Biotzaren ostiral-aureko ostegun bakoitzean gordeten dut nik apaiz-osteguna. Oŕegatik dugu egun ori Yesusen egun oŕetarako atontze onena. Bezperan (asteazken-gauean), azken-otoitza egindakoa, gogokizun (intentzio) au egiten dut «Yaregile maitea, biar nire Ama zerukoaren bitartez gure Elizgizonentzat eskiniko dizut eguna: Aita San-



tuarentzat, gotzaintzat, apaiz ta misiolari diran ta izango diranentzat. Onerako gogoz eta onespenez (debozioz) uñeratuko naiz yaunartzera eta apaizen alde zuzenduko ditut otoitz ta eskin-teak.

Uñengo goizean, goizeko otoitzaren ondoren, itz auezaz beriztatuko dut nire propositua:

«Yesusen Biotz guren-gurena: guzia apaizentzat».

«Yaungoikoaren Ama guziz gurena: guzia apaizentzat».

Gero Meza Santua entzutera yoango naiz da eskinte otoitza egingo dut.

## **V. Apaiz-ostegunerako eskintea**

«O Yaungoiko yaregile (salbatzale)  
»Yesus: Zuri, Zeroren ordezeko dituzun  
»elizgizonak munduaren yaregitea (sal-  
»bazioa) auñeratzeko arduradun egin  
»dituzun ofi, Zure Ama Mariaren bitar-  
»tez, apaiz ta apaizgaien santutasune-  
»rako, egun oso au ta neronen otoitz ta  
»lan ta poztasun ta estualdi guziak opa



»dizkizut. Eman izkiguzu, Yauna,  
»apaiz benazko santuak, zure maitasun-  
»ez suturik zure aintza (gloria) baino  
»besterik nai ez tutenak.

»Barneko ta atetiko arisku guzieta-  
»tik gorde itzazu eta batez ere urindu  
»itzazu beren onbide ta gurari ederen  
»etzaien asmo gaiztoetatik.

»O apaizen Ama samur Maria, gu-  
»ziok zure magalpean ar itzazu. Eta  
»bidea galdurik dabilten elizgizon eru-  
»kañiak zure eskuak bide oneratu ta  
»artzain onarengana eramán bitza.  
»¡Añen!»

*Gero beste otoitz au egingo dut:*

«Yaregile maitea, Zu emen aldarean  
»zauzkagu. Neronen Yaungoiko ta Eñe-  
»ge bezela yauresten zaitut. Zuk zeruko  
»Aitari Mesa Santuan Zeroren burua es-  
»kinten diozu. Badakizu zertarako  
»natorkizun gaur samurturik eta poz-  
»añen Meza Santu au entzutera. Apaiz  
«-osteguna dugu gaur.

»Meza santu onetan eman ditzada-  
»zun grazia guziak, luñean dituzun Zure



»ordezkoen onerako, Andre Mariaren  
»bitartez, opa dizkizut: Aita Santu, Go-  
»tzain, misiolari ta apaiz ta apaizgai  
»guzien onerako. Batez ere nire anima-  
»zainarentzat. Saritu itzazu, Yauna,  
»apaizak ni ta aur guzien alde gure bal-  
»tzu edo kongregazio onetan egin ta  
»egingo duten onagatik.

»Apaizaren eskutik artu ditut nik Ba-  
»teo santua ta beste grazia asko. Apaizak  
»siniste gurenean argitu nau eta aufe-  
»rantzean ere nire bizia alai ta zoritsu  
»izan dadin lagun egingo dit. Berak ni  
»ta nire guraso ta kristau guzientzat  
»otoitz egin ta opariak eskintzen ditu.  
»Berari zor diogu Zu gure artean Eli-  
»za onetan bizi izatea. Berak eriai ikus-  
»taldiak egin ta atsekabetuai atsegina  
»ematen die. Berak, zure ordezkoa da-  
»nez, animatik ogenak (pekatuak) ken-  
»tzen ditu. Berak gure lanak bedinka-  
»tzen dizkigu, gure luřetako arnari  
»(frutu), gure etxe ta bizi izateko dugun  
»guzia ere bai. Berak elizan Yaungoi-  
»koaren itza iragarten du ta bere itzal-  
»dietan Zure aginduak bete ta Zu biotz-



»ez maite izaten irakasten digu. Onta-  
»sun guzi auen alde nik gaur apaizai  
»eskerak erakutsi nai dizkiet, nire ani-  
»mazainari batez ere. Ar itzazu, Yauna,  
»nik gaur gogoz ta alai agertzen dizki-  
»zudan otoi ta eskinte auek. Amen».

## Komunio Santurako

Beste egunetako otoitzak egingo ditut egun onetan. Uste on au beñiz erakutsiko dut:

«Dana, Yesusen Biotz guren-gurena,  
»dana apaizen alde. Onetsi ta gurendu  
»(bedinkatu ta santutu) itzazu».

## VI. Auñen oparia

Sañtan bururatuko dut gaur apaizosteguna ospetzen dudala. Uste onezaz berarizko opariren bat egin bear dut.

Bear bada gauza onen bat neronen buruz egin dezaket, esaterako, amari ta anai-arebai beren lanetan lagun egin, beren asmoetan esangin gaurdanik izan.

Bear bada goxokiren bat edo beste bazterean utziko ditut.



Bear bada gurasoen baimenez aur txiro bati yostailuren bat eman.

Bear bada eri dan ikaskideren bat ikustera bere etxeratu.

Bear bada gure eskolako mutiko bat apaiz izatera eldu daditela eskatuko dut.

Bear bada apaizgai txiroentzat edo paganuen aurentzat nire eltze itsutik diruren bat aterako dut.

Bear bada apaizen alde Via Crucis egingo dut gaur.

Dana dala egingo dudan oparia zein izan dezaken gogoratuko dut eta gero baita bete ere.

Bai, otoitz, lan, pozaldi ta naieztxoak ere oro Yainkozko Yaregileari, Andre Mariaren bitartez, apaizen ta apaizgaien gurentasunerako eskiñiko ditut.

## VII. Aur ogeratua

Eri banago, al dudan ongien ospatuko dut apaiz osteguna, gure Yauna ekañi dezaidela eskatuko dut eta Bera artzean Yainkozko Yaregileari «Ene Jesus», esango diot, gaur nire atsekabe ta min guztiak apaizen alde opa dizkizut, batez



ere Aita Santu, gure gotzain eta nire animazainarentzat. Ez naiz gaur eze-  
rengatik estutuko, eřetasunik eraku-  
tsi ere ez, sendagaririk saminenak ere  
gogoz artu nai ditut. Alai eramango dut  
ene eritasuna. Bedeinka itzazu, Yauna,  
nire aitorlaria, gure gotzaina ta Aita  
Santua.

Guzia, Yesusen Biotz maite maitaga-  
fia, guzia apaizentzat. Onetsi ta guren-  
du itzazu.

## VIII. Neronen animazain ta apaiz guzien alderako Otoitza

•O Yesus, Yainko yaregile edo sal-  
batzaile, gure Elizaren atsegin-atseka-  
beak apaizen ardurapean dauzkazun  
•Yesus maitea: ene barneko garik an-  
dienaz Zure biotzeratu nai nituke nire  
•animazainaren eta apaiz guzien gogo-  
kizun edo intenzio ta apostolukuntza-  
ko bear izan guziak. Egiazko santuta-  
sunez geroago beteago egizkizu.



•Zeroñen ta animen maitasunez beteri-  
•ko biotz andi, apostolu-biotza, eman  
•zaiezu,Zeroñengan berak santu eginda,  
•beren eliztañak santutu ta zerura-bi-  
•dean ezañi ditzaten. Zure graziak  
•biotza gainezkatu bezaie.


•Beren burubide edo kontzejuz ta  
•bizikeraz eta Eliza ta Aita santu ta go-  
•tzainai dieten maitasun ta zintzotasun-  
•ez guretzat beti ontasun-bidean eredu  
•izatea egizu, Yauna.

•Yesus maite maitea: Bedinka ezazu  
•beren apaiz-lana ta sakrifiziozko bizia.  
•Bedinka itzazu beren otoitz guziak,al-  
•darean eta aitortegian eta irakastegian  
•(pulpituan) eta katekesis ta batzar ta  
•gaixoen inguruan esaten dituzten itz  
•guziak ere bedeinka itzazu. Amen.

•Yaungoiko yaregilea: apaizkuntza-  
•ra, bai mundurako ta bai komentuetar-  
•rako, Zeroñi zintzo yaraikiko dizuten  
•anima on onai dei eglezu. Eta ilda-  
•ko apaizen animak betiko atsedena  
•len bai len izan dezatela.



• Indazu neroni ere sinistedun ta esan-  
• gin izateko gogo egiazko bat, ene ani-  
• maren arduradun apaizarengan beti  
• Zure ordezkoa ikusi ta bere irakaspem-  
• ak zintzo ta gogo onez yafaiki ditza-  
• dan. Amen. •.





## IX. Apaizentzako Letaña

1. Yaungoiko Aita ta Seme ta Gogo Gurena . . . . entzun gaitzazu jañen!
2. Yesus, gure Apaizburu, Eskeingai, ta Maisu zeran oñek . . . . . entzun gaitzazu jañen!
3. Onetsi itzazu gure Aita Santu, Go-tzain ta Apaizak . . . . . entzun gaitzazu jañen!
4. Eman zaiezu Zure graziaren indar-a, Zure biotzaren maitasuna ta Zure bizitzako opari-gogoa . . . . . entzun . . . . e. a.
5. Sinistean sendoak, lanetan guren-ak eta Zure agindupean zintzoak izan bitez . . . . . entzun . . . . e. a.
6. Apostolu-garéz ta martiri-kemenez ta aitorlari-gogoz bete itzazu . . . . entzun . . . . e. a.
7. Ogendiak (pekatariak) Zureganatu, bidebagnetuak zuzendu ta ezyaki-nak argitu ditzatela . . entzun e. a.



8. Beren lanetan pozez eta atsekabe-  
etan egoariz eta ezbeařetan irau-  
penez sendatu itzazu . . . entzun e. a.
9. Begira itzazu berengan umetxo-  
tzako maitasuna, gazteak bear be-  
zela azteko gařa ta eřiarentzako  
zintzotasuna . . . . .  
entzun gaitzazu jařen!
10. Bedinka itzazu beren pulpituko  
itzak, katekesisko irakaspenak, ai-  
tortegi ta eri-ondoan emandako  
aolkuak (eritziak) . . . . .  
entzun gaitzazu jařen!
11. Gorde itzazu inpernuko etsaiaren  
esetsietatik, gizon okeřen iruzufe-  
tatik eta pekaturako eretietatik . . .  
entzun gaitzazu jařen!
12. Berakin gu sinistean bat izan gai-  
zela, Yaungoikoaren agindupean  
zintzoak eta oituretan gurenak . . .  
entzun gaitzazu jařen!
13. Eman izkiguzu Gotzain ta Apaiz  
ta Misiolari gurenak . . . . .  
entzun gaitzazu jařen!



Munduko ogenak kentzen dituzun  
Yainko Bildots orek .....  
barka gaitzazu, Yauna

Munduko ogenak kentzen dituzun  
Yainko Bildots orek.....  
entzun gaitzazu, Yauna

Munduko ogenak kentzen dituzun  
Yainko Bildots orek.....  
eruki izan gaitzazu, Yauna.





## Otoitza

Yaungoikoaren Seme Yesukristo:  
Zuk esan duzu: «Uzta ugari da, nekazariak beriz urri; eska zaiezu uzta-yabeari nekazariak bere uztara bidali ditzala».  
(*Mat. IX, 37-38*).

¡Otoi, Yauna! Zure oinatzai yafaitzeko ta Zure mastian apostolu-gaitez lan egingo duten apaizak geitu bediz. Sineste bageko ta okerdunak zuzentzeko argia ta grazia eman zaiezu, makalak sendotu ta Zure yaurgoa (ereina) Luñean zabaltzekoa ere bai. Zure ordezkioak ditugulako, gabiltzan gu beti beren ondoren, eta beren itzak gogoz aditu ta beren lanai kristau-bizikeraz erantzuteko laguntasuna eman zaiguzu.

Gure eskariak atsegin izan dakizuzala, Yauna, eta menderen mendeetan bizi ta agintzen duzun Oñengan ongi artuak izan ditezela. Amen.



Aur maitea: atsegin emango dizun zerbait yakin-araztera natorkizu. On ere egingo dizula uste dut.

## X. Bertatxo Baumannen bizia, laburtuz

Amairu urteko neskato Berta, elbari (ibili ezinik), Heidelberg-ondoko Schlierbach deritzaion uritxoan (Alemanian), Wieland izeneko gaixotegian egon zan. 1922-garen urteko urtarilaren 2-an yaio zan Neckarau deritzaion erian. Gazte gaztetatik bizkar-ezura zeukan mindua ta bere amak sendalaririk sendalari erabili bear izan zuen aur gaixoa. Zazpi urte bete zitueneko eraman zuten len aipaturiko eritegira. Egun guztian gurditxo batean egon bear izaten zuen, naiz eskolan ta otoiztegian naiz yostatzzen ziran nexka-mutilko-artean.

Bera zegon gaxotegi artan beste aur elbari batzuek ere baziran. Guziak Bertatxo begi oso onez ikusten zuten, ona ta argia ta ikastuna ta elizkoia baitzan. Bein ere etzuen bere oinaze ta



atsékaberik erakusten. Yaungoikoaren maitasunez isilik eramaten zituen. Ikas-te-lanetan beste aurai lagun egiten zien eta beti zegoen gertu txikiago ziran makaltxoak poztzeko.

Bederatzi urtekoa zala artu zuen lenengoz gure Yauna. Bere bizitza guziraiko oiña bezela izan zuen egun hura. Yainkozko Yaregileak orduantxe ezagutarazi zion bizi izateko arau eder bat eta alaxe yakin zuen paganuen aur ta apaiz ta misiolarien onerako eskini bear zituela berak bere otoitz ta atsekabe guziak. Gar aundiz egiten zituen otoitzak. Bere buruaz etzan bein ere oroitzen, beti besteren batzuz. Egoari aundiz eramaten zituen minak.

Bein eri gaizki egon zan. Yaunak bere anima zerura eraman nai zuela esan zezakean. Berak orduan atsekabe-artean au esan zuen «¿Gure Yaunak ezoteluke obetzat artuko, ni emen beste bi bat urtetan min artean apostolutxo bat bezela izatea? Berak nai duena egin bedi ordea».



Bere guraria bete nai izan zuen Yau-  
nak; bada sendaturik bere apostolu-  
gurditxoan beriz sartu zan. Poz andiz  
asizan orduan Yaungoikoari egunoro be-  
re minak apaiz ta misioen alde eskinten.

Bertatxok Yaregile maitearenganik  
ikasi zuen oparizko bizikera au. Bera-  
renganako begirune (lotsa) andia zuen.  
Al zuen maizen Yaunartzera urbiltzen  
zan, bear bezela gertatu ta bañen bañe-  
neko eskerak emanez. Auñak makinaz  
bezela eguneroko otoitzak egiten zituela  
entzun ere entzun al izaten. Onek Yau-  
nari min ematen dio, esaten zuen berak.

Bertatxo ontasuna bera izatera eldu  
zan, baina ez gaiztasun bage, berak  
ere oñetarako aleginak egin bear bai-  
tzituen. Egunoro bere bañena ikertzen  
zuen: otoitza ongi egin otezuen, nagu-  
sien esanak pozik egin, bere asmo ta  
egikizunak zintzo ta bear bezela bete.  
Bere lan, atsekabe ta pozak oro apaiz  
ta misiolarientzat ziran.

Bein Manna zeritzaion norbaitek au-  
rentzat egindako egutegi edo kalendario  
bat, bere izeba batek igoñia (bidalia)



eldu zan bere eskuetara. Arentzat liburutxo bat gozoki ta izkimizki guziak baino gozoago zan. Egutegi ortan sari-tua izateko igarkizun bat ageri zan. «Zer dala ta zer dala...». Bertatxok igarkizun hura zer zan igari ta bere asmoa kalendariogileari igofi zion. Amabi egunen buruan Manna yaunak egindako eskutitz bat izan zuen. Apaiz larunbata (1) zer zan esaten zion. Bertatxok ere apaiz-egun au bete zezakeala (auxe ziotsan eskutitzean) bere atsekabeak eskiniz; eta on andia egingo zuela. Bertak Yesusen Biotzaren uñengo larunbatean gure Yauna artu ta Yaungoikoari eskiniko zion egun osoa atseka-be ta atsegin, otoitz ta lan on guziekin, apaizen alde, Yaungoikoak beren bizitza ta egikizun guziak bide oneratzeko graziak berai emateko.

Au irakurtean Bertatxo oso samurtua gelditu zan. Beñiz ta beñiz eskutitza irakufi ta uñengo egunetan zintzo

---

(1) Aita Santuaren gogoz larunbat au ostegun izatera etofi da.



apaiz-larunbataren asmo guren onezaz ari zan gogoketan. Egun aietan eguzkiak dirdiratsu argi egin zuen.

Burutasun eder bat izan zuen Berta Txikiak. Lau urte lenago lenengoz Yaunartzea egin zuenetik bere otoitz ta opari, lantxo, poz ta nekealdi guziak apaiz ta misiolariantzat eskintzen zituen. Nik, onelaxe uste zuen Bertatxok, nik oraindik eskini nezakean bakarra neronen bizia da, bai, «nire lenbiziko apaiz-larunbatean» auxe izan bedi nire oparia.

Gaxotegiko Aizpa nagusiari alaitsu esan zion Bertatxok: «egutegiko igarkizuna igari nuelako sari andi bat irabazi dut nik. Sari au apaiz-larunbata dut. Gauza andi ta guren bat da, onetan sartu nai dut nik».

Izan ere Apaiz-larunbata (geroxeago apaiz-osteguna) Bertatxorentzat bezuzarik eder ta saririk andiena izango zan. Bere lenengo apaiz-larunbata geroxeago zetozen, 1935-garen urteko kandelario-egunean. Egun oretan burua zuela poz andia zuen berak. Gaxote-



gian egun batzuk lenago Saarko auteskunderan izan zan garaitza andia ospetu zuen, Bertatxok orduan otzalditxobaten ondorean ogeratua egon bear izan zuen egun pare batean.

Bere lenengo apaiz larunbata gainean zuen. Ogean zegoela ospetu bear izango zuen. Aurreko gauean makalago arkitzen zan. Goizean yaikiteko alegin egin bear zuen, baina makal zegoen, gogoz izan ezik bestela etzuen yaunartu al izango eta goizeko otoitzean Yaungoikoari apaizentzat eskini zion bere bizia. Gainera sendagari minkatx bat eta pildorak artu bear izan zituen. Kemen aundiz egin zuen au.

Naiezik andiena beretzat Yesus sakramentuan artu ezin izatea zan. «¿Niretzat, zioan berak, edertasunik zer du komunio bageko apaiz-larunbat batek? Zeruko Ama enea ¿nola izan dite au? Gaur etori dedila jafen! niregana kape-laua, asti izan dezala; bada Zuk, Ama, badakizu auxe dudala nere lenengo larunbata».



Bertatxoren eskaria etzala entzuna izango zirudien. Onetan Aizpa nagusia eldu zan bere oge-ondora. «Yaungoiko maiteak nire oparia aintzat artuko duela uste duzu, Aizpa nagusia? Nik bene benetan nire lenengo apaiz-larunbatean Yaungoikoari bizia opa nai nioke».

Ama on baten antzera Aizpa nagusiak egotaldi luzeak egin zituen Bertatxoren ondoan. Berarekin otoitz egiten zuen. Aurak galdera afigari zenbat egin zizkion. Au beste batzun artean. ¿Uste duzu, Aizpa nagusia, nik zilegi nukela, zure arazo guziak nik egitea eskatu bezain uruti, Yaungoikoaren Amarengana. San Yoserengana ta Anai Konradorengana yo nezakela?

Garretan zegoen bere gogoa Yesusen ganako gutarez betea. Bere biotzak siniste zoritsu, aufen siniste garbitan dirdir argi egiten zuen. Ordurik ordura Yesusekin izateko guraria geitzen zitzaien.



«Aizpa nagusia, eri makal dagoen batek, barurik egon ezaren, ar dezake bere barnean gure Yauna ¿ezalda egia?

Ez, aua, gaur ez. Biar etofiko da zinez Yaregilea. Zuk badakizu larunbatetan apaizak zeregin andiak dauzkate. Kapelau yauna eri askorengana deitua izan da. Asko ziran ere gaxotegian makalik zeuden eridunak. Baina gure Yauna artzeko guraria geroago sutuago zuen Bertatxoren animak. Ala ere, opari bezela, Sakramentu gurena artu bage egoteko ere gertu zegoen bera.

Beñiz otoitz egin zuen, esanez: «Yaungoiko maitea, gaur nire lenengo apaiz-larunbatean nire bizia apaizentzat opa dizut. Ar zazu nire opari au».

Elizakoakeragindakoan kapelaua, bere bitarteko gartsu ta zintzoena, zetzan oge-ondora urbildu zan. Nexkatoa makalago ta ezariago zegoela ikusi zuen.

Bertatxok gure Yauna artzeko gogoa beñiz erakutsi zuenean otoiztegira gure Yaunaren bila yoan zan apaiza.

Aizpak bear zan guzia atontzen (gertutzen) bereala asi ziran. Bertak



soineko zuri zuri bat yantzi zezatela eskatu egin zien «Orixe izango da nire il-yantzia».

Berak nai zuena egin zioten Aizpak, beretatik batek ere ilko zala uste izan ezaren. Aur onai pozaldi bat eman nai zioten.

«¿Geiago ezer nai aldun, Bertatxo?»

«Aizpa nagusia: itzul zazu puskatxo bat nire ogetxo au, nik aldarea ongi ikus dezakedan».

Erien otsaria (sala) argi andiz betea zegoen. Berta bere eri ogetxoan begiak zabalik eta argiturik zeuzkala zetzan. Zoriz ta alaitasunez irakiten bezela zegoen. Mintzo ozenez esan zuen «O Maria, ene Ama ¡zein ona zeran Zu!» Eta bein ta beriz otoitz au egin zuen «Yaungoiko maitea: gaur, ene lenengo apaiz-larunbat onetan nire bizia apaizentzat, eskinten dizut. Ontzat ar zazu opari au».

Orduan eritegiko atea zabaldu zan. Txilinak ots egin zuen. Zuriz yantziak belaunikatu ziran Aizpak erigelan eta



idarguan. Guziak otoitzean ari ziran.  
«Jesus, Jesus, zatoz enegana».

Bertatxok mintzo ozenez otoitz egin zuen. Bere ogetxoan agondu zan (bizkaña puzkat goratu zuen). Eskuak tolestuak zeuzkan, masailak goñi ta begirakuna alai. Aingeru-otoitza zan berea. «O Yauna, eznaiz ni duin....» Jesus bere animaren yabe egin zan. Bere inguruan etzaion ezer ageri. «Jesus, Jesus, enekin geldi zaitez. Apaizentzako nire oparia ar zazu».

Gauzarik andiena gertatu zan. Yaungoiko maitea apaizentzako bere bizi gaztearen oparia aintzat artzeko gertu zegoen. Apaizak bere onespina (bendikazioa) beriz eman zion. ¿Apaiza bera, ilteko ordua eldu zekionean, bere ilaureko ogean egon al izango otezan alako aur-zori zerutañez betea? Aur aren ondoan bera gauza txiki ezereza zan. Beste itz auek ere esan zituen:

«Ik, Bertatxo, gu guzientzat otoitz egingo dun, zerura eldu adinean». Eta Bertatxok argi ta mintzo ozenez erantzun zuen: Bai, ni, Yaungoiko maiteak



auxe nai duelako, atseginez apaizentzat ilten naiz». Eta bere animazainari eskerak eman ez «an, esan zion, an Yaunaren ondoan Zuretzat otoitz egingo dut. Zeruan alkar ikusiarte».

Onespena eman ez utzi zuen gero apaizak.

Aizpa batzuk Bertatxoren ondoan geratu ziran. Berak burukoan etzinik zeukan burua ta begiak ertsirik. Aizpak beren kanta kutunaren itz auezaz bein ta beriz otoitz egin zuen «Onetsi zazu, Maria, ene azken ordua. . . .»

Bertatxok berakin batera mintzo ozenez biřesaten zituen beren otoitzak. Eguna ilundu zan. Azkenez bere gau-otoitza ezpaineratu zuen. Gero isil isilik gelditu zan.

Bat batera bere aurpegi-asbegiak ezagunean aldatu ziran. Aizpak otoitzean zeraien iltekoaren ondoan. Erioa urbil urbil zetořela ikusiařen, inor ere etzezakean ilun egon.

Gero Bertatxo bat batera ta kemenez zuzendu zan, eskuak tolestu ta begiak argi argirik zabalduz ta alaitasun andiz



oin egin zuen. «O aizpa nagusia: ikus itzazu an asko....asko....»


Eta itz auezaz ta azken-asnasketa bage bere burua bufukoratu zuen Bertatxok, Bere anima txukunak zerurako bidea artu zuen, bere lenengo apaiz-larunbatean apaizentzako oparitzat.

¿Zer zan Bertatxok ikusi zuena? Aingeruak? Auñak? Ala, bere opariaren saritzako, apaiz mundu ta komentuetakoak izan ote ziran?.... Askok, askok, berdin yantziak ez noski.

Yaungoikoa aundia da, oso aundia. Misio oargari ta apostolukuntza goratsu baterako aur elbafi bat autatu du. Bere eriotzeaz Bertatxo ortzargiak asi du bere opariaren erakusmen altsua, bere bizitzako mezu andia, onela apaiz-egunaren aingeru magaldun bat dala. Aur onen bitartez zerutik apaiz-ostegunaren gamera onespen bat inotsiko da: apaiz asko ta askoren gurentasunerako mundu guziaren bedinkazio neufi bageko batentzat.

Berlingo yaregiletaren (salvatorianos) komentuan — Warschauerstrasse Berlin 57, 034 — idoro al izango du irakurleak Bertatxo onaren bizitzaliburu, zeetasun geiagoduna.









# APAIZ-OSTEGUNERAKO OTOITZA ORACION PARA EL JUEVES SACERDOTAL

**Andante** ERIK=EL PUEBLO

R. M. A.



Jau - a Zu - re a - pa - ah      lu - rus e - ta  
Tus mi - nis - tros oh, Se - ñor,      en i - de - as




bi - ots - as      Gu - re - ah er - e ba - di - tu - ga.      Ber - on bi - tar - tes  
y en a - mor      Son nuestra ri - ca      po - se - sión.      Por sus tra - ba - jos




Zer - oi - en - du ta ar - gal - tue - su -  
has nos Tu - yos job,      Sal - va - dos


SAIL BATEK=UN GRUPO




Zub dai - tu - ah di - ra      ga Zu - se - gan - a e - ra -  
Tus e - le - gi - dos e - llos son      pa - ra con - se - guir que no -



ma - te - ho e - ta      Bi - ots sa - mur af - e -  
so - tros      en e - se Tu      tier - no Co - re -



tan - bi - si gal - tes - en,  
sóo vi - vir      po - da - mos.



Zu e - men maj - ta - tue      or gai - on ga - ro  
y con a - le - gris - a      su - ba - mos luc - go



Zer - oi - en - ah      i - sa - te - ho.  
s e u Tu      Man - sión.



ERIAK=EL PUEBLO

Gu-re-ah er-e ba-di-tu-gu. Ber-on bi-tar-tes  
Sonnuetra ri-ca po-se-sión Por sus tra-ba-jos

Zer-ot-en-du ta ar-gai-tza-sa.  
haz-nos Tu-yos loh. Sal-va-dor.

Moderato SAIL BATEK=UN GRUPO

Zu-re A-mah er-e mai-te mai-te  
De tu San-ta Ma-dre son ellos muy a-

dit-u Gol-go-tan la-gun Yoan-e a-  
ma-dos, pues Juan ya sa-cer-do-te en su mar-

pais-e bai-tzu-en e-ta en Zer-ot-ek,  
ti-rio la acom-pa-ñó y a-lli Je-sús Tú

Ye-sús, Ber-e se-me ta Zu-re a-nai  
mis-mo hi-jo Su-yo y her-ma-no Tu-yo hi-

ERIAK=EL PUEBLO




e-gin zen-u-en. Ber-  
cis-te de él al mo-rir. Por

on bi-tar-tes Zer-ot-en-du ta ar-gai-tza-sa.  
sus tra-ba-jos haz-nos Tu-yos loh. Sal-va-dor




iii. Stesso tempo SAIL BATEK=UN GRUPO

Sar be-di Zu-re su-o  
Tu fue-go pe-ne-tre





ERIAK EL PUEBLO









# Bilabidea

## Orialdean

I. <i>¿Zer da apaiz-osteguna?</i> .....	3
II. <i>¿Zergatik gordeten dut apaiz-osteguna?</i> .....	4
III. <i>Aita Santuaren itzak</i>	6
IV. <i>¿Nola gordeten dut nik apaiz-osteguna?</i> .....	7
V. <i>Apaiz-ostegunerako eskintea</i> .....	8
VI. <i>Aufen oparia</i> .....	11
VII. <i>Aur ogeratua</i> .....	12
VIII. <i>Neronen animazain ta apaiz guzien alderako otoitza.</i>	13
IX. <i>Apaizentzako letafia.. Otoitza</i> .....	16
X. <i>Bertatxo Baumannen bizia, laburtuz</i> .....	20
XI. <i>Apaiz-ostegunerako Otoitz abestua</i> .....	33



**Apaiz - ostegunaren**

Apostolukuntzaz

egindako idazkiak

ESTAMPITAS DEL JUEVES SACERDOTAL.—Erderaz, 2 laurlekoan 100; euskeraz: bizkaieraz ta gipuzkeraz, 4 laurlekoan 100.

DEVOCIONES Y ORACIONES PARA EL JUEVES SACERDOTAL.—96 oñialdeko idaztia. Domua: 0,40 laurleko.

APAIZ-OSTEGUNERAKO ELIZKIZUN TA OTOITZAK.—68 oñialde; 0,60 laurleko.

ABADE-EGUENERAKO ELIZKIZUN TA OTOITZAK.—68 oñialde; 0,60 laurleko.

EL JUEVES SACERDOTAL EN EL AÑO ECLESIASTICO.—72 oñialde; 0,35 laurleko.

APAIZ-OSTEGUNA ELIZA-URTEAN.—64 oñialde; 0,60 laurleko.

ABADE-EGUENA ELIZA-URTEAN.—64 oñialde; 0,60 laurleko.



ABADE - EGUENERAKO OTOITZ  
ABESTUA (himnoa). - Eriak laburtxo lau  
bidar kantetan dau eta tarteka iru aha-  
paldi (estrofa) goiko abeslariak. Alda-  
kuntza bat bere badau otoitz onek, goiko  
abeslarien orde z beko sail batentzako  
ahapal diduna.

Bien domua: laurleko bi.

EL JUEVES SACERDOTAL Y LOS NI-  
ÑOS.. — 40 orialde; 0,40 laurleko.

APAIZ-OSTEGUNA TA AUÑAK.— 40  
orialde; 0,40 laurleko.

**Argitaratzeko:**


ABADE-EGUENA TA UMEAK.

EL JUEVES SACERDOTAL Y LOS EN-  
FERMOS.

Bai liburutxo ta ori ta otoitz abestu  
onek gura dabezanak naikoa dau zu-  
zenbide onezaz Bilbora yotea:

**Sr. Subsecretario de la Academia Vasca**


**Ribera, 5.-BILBAO**













Beneditarre

I

129

1